

# E.H.M.B.E. - EUSKAL HERRIKO MUSIKA BULEGO ELKARTEAREN ESTATUTUAK

## I. KAPITULUA – GAI OROKORRAK

### 1. artikulua - Eraketa

1.1.- E.H.M.B.E. – Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak ‘Euskal Herriko Musika Bulegoa’ izeneko proiektua sustatzeko eta garatzeko eratzten da; proiektu hori ekimen estrategiko bat da, eta Euskal Herriko musika eta jardun musikala bultzatu nahi ditu, zenbait zerbitzu garatuz eta lankidetzako hainbat jarduera gauzatuz.

1.2.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak honako hauek arautuko dute: martxoko 1/2002 Legeak, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorri, elkartei buruzkoak; estatutu hauek, lege horrekin kontraesanik ez badute; elkartearen gobernu organoek balio osoz egindako hitzarmenek, baldin eta ez badira legearen edo estatutuen aurkakoak, eta Gobernuak onartuko dituen araudizko xedapenek (azken horiek izaera osagarria bakarrik izango dute).

### 2. artikulua.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen helburuak eta jarduteko ardatzak

2.1.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak nabarmendu egin nahi du Euskal Herrian sortu eta ekoiztutako musikaren garrantzia –edo Euskal Herrian jaio diren edo harekin lotura duten beste musikari batzuen musikarena–, eta haren presentzia soziala indartu nahi du; halaber, musikaren arloko balio katean esku hartzen duten agenteen jarduera azpimarratu eta bultzatu nahi du, betiere jarduera horren kalitatea eta profesionaltasuna areagotzeko lan eginda.

2.2. ‘Musika Bulegoa’, beraz, musikaren euskal sektoreko agente guztientzat irekita egongo den eta zerbitzu bokazioa izango duen ekimen gisa eratzten da, eta haren lan ildo nagusietako bat izango da elkarrizketa, koordinazioa eta lankidetzaren indartzea, bai agente horien artekoa, baita agente horien eta aipatutako balio katean zuzenean edo zeharka parte hartzen duten erakunde eta ekimen publiko eta pribatuen artekoa ere, kateko azken mailatzat hartuta publikoa, hau da, gizarte osoa.

2.3.- Musika jarduera garatzeko, E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren landu eta sustatuko du, musikarekin zerikusia duten erakunde publikoekin akordioak eta hitzarmenak izenpetuta.

2.4.- Hauek dira Elkartearen helburuak:

- 2.4.1.- *Euskal Herriko* musika anitza babestea eta indartzea, eta haren kalitate artistikoa eta profesionaltasuna areagotzeko lan egitea.
- 2.4.2.- Musikaren sorkuntza, ekoizpena eta hedapena babestea eta zabaltzea.
- 2.4.3.- Euskarazko musika babestea eta zabaltzea.
- 2.4.4.- Musikaren arloko ikerketa babestea eta zabaltzea.
- 2.4.5.- Musikaren gaineko ezagutza eta prestakuntza sustatzea, baita hari begirako zaletasuna eta sentsibilizazioa ere.
- 2.4.6.- Publiko berriak sortzea eta *Euskal Herriko* musikaren kontsumoa sustatzea.
- 2.4.7.- Sektoreko agenteen jarduera babestea eta indartzea, eta haien jarduera profesionala hobetzeko lan egitea.
- 2.4.8.- Sektoreko informazioa, komunikazioa eta koordinazioa babestea eta indartzea.
- 2.4.9.- Musikaren sektoreko elkarten sarea babestea eta indartzea.
- 2.4.10.- Musikaren sektoreko kide eta gabeko agenteekin elkarriketa eta lankidetzaz eraztea eta areagotzea, baita beste sektore kultural batzuetako agenteekin ere.
- 2.4.11.- Elkartearen jarduerak garatzeko baliabideak areagotzea eta optimizatzea, baita oro har musikaren jarduera garatzeko baliabideak ere.

2.5.- Jarduerak garatzeko eta aurrekontuko gastua mugatzeko, Elkarateak jarduteko ardatz hauek hartuko ditu kontuan:

- 2.5.1.- Koordinazioa eta zerbitzuak.
- 2.5.2.- Sektoreko eztabaida.
- 2.5.3.- Prestakuntza etengabea.
- 2.5.4.- Sentsibilizazioa.
- 2.5.5.- Sustapena eta hedapena.
- 2.5.6.- Kanpoko presentzia.

### **3. artikulua.- *Elkaratearen partaidetza sistemaren filosofia eta ezaugarriak***

---

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkaratearen partaidetza sistema eta funtzionamendua diseinatzeko garaian, bateratu egin nahi izan dira 'Musika Bulegoa' proiektuaren oinarri kontzeptuala –estatutu hauen 1., 2. eta 6. artikuluetan islatutako eratzeko printzipioetan eta helburuetan laburtua– eta hainbat alderdi eta baldintza, musika jardueraren egitura sektorial konplexuari lotutakoak. Bi ikuspegiak dokumentu osoan ageri dira, nahiz eta artikulua honetan, partaidetza sistemari buruzkoan, hiru alderdi hauek nabarmentzea komeni den:

#### **a).- *Elkarateko kide izateko baldintza***

Hasierako elkarriketatik, proiektuan parte hartu duten agenteak eta hura sustatu duten erakundeak bat etorri dira eta datoz iritzia honetan: '*Musika Bulegoa*' eraikitzeke, hedatzeko eta garatzeko ezinbestekoa da profesionalen inplikazio zuzena edo, besterik ez bada, musikaren sektoreko elkarre aktiboetan antolatutako taldeena.

Hortaz, agente horiek izan behar dute proiektuaren sustatzaile eta aktore nagusiak; eta gogoeta horretantxe oinarritzen da, hain zuzen ere, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarate sortzeko argudio nagusia, baita Elkarateko bazkide titular izateko ezarritako formula edo baldintza administratiboa ere: jarduera ekonomikoaren gaineko zergan (JEZ)

musikaren jarduerari lotutako epigraferen batean alta emana dutela egiaztatzea (9.1. artikulua).

Elkartea, ordezkaritza zabaleko lau elkarte sektorialen partaidetzaz eratu dena, irekita egongo da baldintza hori betetzen duen ororentzat, eta bertan parte hartu ahal izango dute sektoreko beste elkarte handi batzuek (musikaren jardueraren beste arlo batzuetan osatuak), baita Elkartearen helburuekin bat etorrita proiektuan parte hartu nahi duten bestelako erakundeek ere, edozein dela ere haien jarduera zehatza edo tamaina (elkarte txikiak, jabe bakarreko enpresak, kooperatibak edo langile autonomoak).

Nolanahi ere, proiektuaren konplexutasuna eta *Elkarteko* bazkide izan daitezkeen aniztasuna aintzat hartuta, antolakuntzaren eraginkortasuna bermatze aldera, komenigarria da estatutuaren bazkide moten eta Elkartearen Batzarreko boto haztapenen gaineko aurreikuspen batzuk sartzea:

**b).- Bazkideen tipologia** (estatutuen 9.2. artikuluan definitua).

Nortasun juridikoa eta tamaina (bazkide edo langile kopurua) kontuan hartuta, Batzarreko boto kopuruari eta ordezkartzari dagokionez, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkideak bi talde handitan bereiziko dira: T1- Ordezkaritza zabaleko elkarteak eta T2- Bestelako elkarteak eta enpresak (9. artikulua, 2. puntua).

Bestalde, jarduera motaren arabera, eta antolatzeko eta parte hartzeko erreferentzia gisa, *Elkarteko* bazkideei lehentasunezko jarduera arlo bat egokituko zaie, norberak aukeratua (9. artikulua, 3. puntua).

Horrez gainera, estatutu hauetan aurreikuspenak sartu dira *Elkarteari* kidetuta dauden erakundeetako bazkide diren norbanakoei edo kide bakarreko erakundeek buruz (12. artikulua). Horiek bazkide titularren eskubide orokorrak dituzte, baita *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkide zuzen izateko aukera ere; modu horretan, boto eta ordezkaritza eskubideak lor ditzakete. Aurreikuspen horrek, eta oro har proiektuaren diseinu osoak, 'Musika Bulegoa' proiektuaren helburu eta jardueretarako inplikazio aktiboa sustatu nahi du, eta balioa erantsi nahi dio inplikazio horri.

**c).- Batzarreko ordezkagarritasuna eta boto haztapena** (estatutu hauen 18. artikuluko 2. eta 3. puntuetan definituak).

Proiektuaren oinarri kontzeptualak eta aurreko ataletan aipatutako erreferentziak aintzat hartuta, komenigarria da Batzarreko ordezkagarritasun sistemak sektoreko agenteek elkartzeko egindako ahalegina aitortzea eta indartzea, betiere Elkartearen zeharkakotasuna eta horizontaltasuna gordeta; ahalegin horrek balio handia izango du 'Musika Bulegoa' proiektuak ekarriko duen lankidetzaren sektorial zabalak arrakasta izan dezan.

Hala bada, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen Batzarrean, ordezkaritza zabaleko erakundeek (T1 taldeko bazkideak) erakunde txikiak edo kide bakarrekoek (T2) baino boto kopuru handiagoa izango dute. Azken talde horren barruan ere alde txikiak izango dira, erakundearen tamainaren arabera.

Bestalde, 'Ordezkaritza zabaleko elkarteak' (T1) talde osoarentzat ordezkagarritasun orokorreko gutxieneko ehuneko bat ezarri da, % 50ekoa, elkarte txikien edo kide bakarreko

enpresen (T2) kasuan ez bezala (9.3. artikulua). Edozelan ere, elkarte horiek musika jardueraren arlo oso desberdinetakoak izango direnez, praktikan ezinezkoa izango da sektore bat etengabe beste baten gainetik egotea Batzarrean erabakiak hartzean.

Erakunde fundatzaileek adostutako boto eta ordezkagarritasun sistema, estatutu hauetan jasoa, orekatua da, eta bazkide orori ematen dio proiektuak proposatzeko, koordinatzeko eta garatzeko aukera, baita Elkartearen funtzionamenduan eta gobernu organoetan parte hartzeko aukera ere.

#### **4. artikulua. – Lurralde eremua**

---

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Euskal Autonomia Elkartearen ezarri eta erregistratutako da, eta Euskal Herrian garatuko du bere jardura nagusia, nahiz eta lurralde horretatik kanpoko jardueretan esku hartu edo lagundu ahalko duen, bere helburuen eta jarduteko ardatzen arabera.

#### **5.-artikulua.- Egoitza soziala**

---

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Vitoria-Gasteizen izango du egoitza soziala, Arrasate kaleko 11. zenbakian (01013), eta Batzar Nagusiak berriaz adostuta aldatu ahalko da egoitza hori. Elkartearen lurralde eremuan ordezkaritza berriak sortzeko erabakiak ere Batzar Nagusiak hartuko ditu.

#### **6. artikulua.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen izaera**

---

6.1.- *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak izaera kulturala, mugagabea, irekia eta partizipatiboa du, eta ez dauka ez irabazi asmorik ez asmo espekulatiborik.

6.2.- Komunikazioari, kudeaketari eta gastuari dagokienez, Elkartearen barne antolamendua eta funtzionatzeko metodologia demokratikoak eta gardenak izango dira, eta erabat errespetatuko dituzte aniztasuna, parekotasuna eta berdintasuna.

6.3.- Zuzenbidean erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen ezein alderdi aintzat hartzen ez duten itunak, estatutuko xedapenak eta hitzarmenak.

#### **7. artikulua.- Nortasun juridikoa**

---

7.1.- Elkarteak nortasun juridikoa izango du, eta, hortaz, eskumen osoa izango du ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, edukitzeko, zergapetzeko, besterentzeko, hipotekatzeko eta administratzeko; halaber, bere helburuekin lotutako ezein ekintza eta kontratu gauzatu ahalko du.

7.2.- Bere irudia hobeto identifikatzeko, logotipo bat sortu ahalko du, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak osatuko duten federazio, gremio eta elkarteetako kide guztiek erabil dezaten.

7.3.- Era berean, bere kide eta bazkideen aldeko edozein jarduera garatu ahalko du, eta estatutu hauetan jasota dauden helburuak erdiesteko komenigarritzat jotzen diren zerbitzu kolektibo guztiak ezarri ahalko ditu.

7.4.- *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteabitartekari balioduna izango da administrazioaren, erakundeen eta entitateen aurrean, baita beste sektore ekonomiko eta sozial batzuen aurrean ere.

7.5.- Nolanahi ere, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko kide guztiek izango dute erabateko autonomia beren interes espezifikoak kudeatu eta babesteko norberari dagozkion estatutu eremuetan.

## 8. artikulua.- Hizkuntzei begirako funtzionamendua

---

8.1.- Elkarteen estatutuak euskaraz zein gaztelaniaz idatzita egongo dira. Halaber, *Elkartek* sortutako jakinarazpen ofizial eta dokumentu oro elebiduna izango da.

8.2.- Batzarretan eta bileretan, hautatutako hizkuntzaren erabilera errespetatuko da, horretarako metodologia arinak eta egoera bakoitzerako egokiak adostuta.

8.3.- Jendaurreko ekitaldi, aurkezpen edo jardunaldietan, edo izaera ofizialekoetan, ondoz ondoko edo aldibereko interpretazioa erabiliko da.

## II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

### 9. Artikulua.- *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkideen baldintzak eta tipologia

---

9.1.- *Elkarteko* eskubide osoko kide edo bazkide izan ahalko dira musika arloko jarduera profesional bat garatzen duten pertsona edo entitate pribatu guztiak, baldin eta egiaztatuta egiten badute jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) alta emana dutela musika jarduerekin lotutako epigraferen batean.

9.2.- Batzarreko boto haztapenerako, *Elkarteko* bazkideei tipologia hauetako bat esleituko zaie:

#### **T1- 'Ordezkaritza zabaleko elkarteak'**

Mota horretako bazkideak izango dira baldintza hauek betetzen dituzten elkarteak (edo elkarten federazioak):

a) *Eremuari, helburuei eta ibilbideari dagokienez, lau baldintza hauek:*

a1).- Balio katearen edo adierazpen estilistikoaren edozein eremutan proiektuak edo jarduerak gauzatzea, betiere egiaztatuta barne hartzen dituztela gutxienez 4 kolektibo/proiektu musikal desberdin.

a2).- Gutxienez Euskal Herriko hiru lurraldetan ezarrita egotea, bai bazkideen jatorriari dagokionez, bai jardute eremuari dagokionez.

a3).- Gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea, erregistro ofizialeko data hartuta erreferentzia gisa.

b) *Bazkide kopuruari dagokionez, eta tipologiaren arabera:*

b1).- Enpresen elkarteak: gutxienez 25 enpresa kideku.

b2).-Elkarteen federazioak: gutxienez hiru lurralde osokoak edo 10 elkarte txiki.

b3).- Pertsona fisikoen elkarteak: 75 pertsona kideku baino gehiago.

## **T2- Bestelako elkarteak eta enpresak**

Mota honetakoak izango dira:

a).- T1 taldeari eskatutako baldintzak egiaztatzen ez dituzten enpresa edo pertsona fisikoen elkarteak.

b).- Enpresa oro, edozein duela ere nortasun juridikoa edo tamaina.

9.3.- Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak egituratzeko, eta agenteen arteko zeharkako lankidetzak indartzeko asmoz, *Elkarteko* bazkideei, gauzatzen duten jardura nagusiaren arabera eta norberak aukeratutakoaren arabera, tipologia hauetako bat esleitu zaie:

**A1).- Sorkuntza, interpretazioa, prestakuntza, ikerketa** eta horiei lotutako beste batzuk.

**A2).- Ekoizpena, sustapena, ordezkariak, teknika** eta horiei lotutako beste batzuk.

**A3).- Programazioa, hedapena** eta horiei lotutako beste batzuk.

9.4.- *Elkarteko* erakunde kideku bakoitzari 9.2. eta 9.3. artikuluetan aurreikusitako tipologiaren bat esleitu zaio, 10. artikuluan ezarritako metodologia erabiliz.

9.5.- Bazkideek egokitutako tipologia aldatzeko eskatu ahalko dute, euren egoera juridikoan edo elkarte egoeran aldaketarik izanez gero, eta konpromisoa hartuko dute Elkarteari jakinarazteko esleipen horri eragiten dion aldaketa oro. Era berean, batzarrak egin aurretik, Zuzendaritza Batzordeak informazioa eta dokumentazioa eskatu ahalko du, bazkideen esleipen tipologikoa eguneratzeko.

9.6.- Etorkizunean Elkarteak beste figura batzuk ezarri ahalko ditu, hala nola bazkide jarraitzailearena edo laguntzailearena, horien sorrera justifikatuko duten proiektuen arabera.

## **10. artikulua.- Elkartean izena emateko prozedura**

10.1.- 9.1. artikuluan adierazitako baldintzak beteta interesa duten pertsona edo entitateek *Elkartean* zuzenean inskribatu ahalko dute, eta bazkideen eskubide eta betebeharrak guztiak izango dituzte (11. eta 13. artikulua).

10.2.- Bazkide berriek *Elkartean* izena emateko prozedura honako hau izango da:

a).- Eskaera idatzia bidaliko diote Zuzendaritza Batzordeari (horretarako prestatutako ereduaren arabera), eta idatzi horretan datu hauek adieraziko dituzte:

- Identifikazioa.
- Gauzatzen duten musika jarduerari buruzko datuak.
- Dagokion entitatearen egiturari buruzko datuak.

Eskaerari erantsiko zaizkio dokumentu hauek (norberak dagozkionak erantsi beharko dizkio):

- JEZko alta agiriaren kopia.
- Elkarteen erregistroko kopia edo entitatearen estatutuak.
- Eskatzaileak ordezkari gisa jarduteko ahalmenaren agiria.
- Elkarteko bazkide diren entitate edo pertsonen zerrenda.

b).- *Elkarteko* Zuzendaritza Batzordeak eskaera eta dokumentazioa aztertuko ditu, eta honela jardungo du:

- Baiezkoa izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak alta emango dio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta, aurkeztutako informazioa eta dokumentazioa oinarritzat hartuta, 9.2. eta 9.3. artikuluetan aurreikusitako tipologiaren bat esleituko dio, dagokiona.

- Baldintzaren bat betetzen ez badu, *Elkarteko* Zuzendaritza Batzordeak ezezkoa emateko erabaki arrazoitua jakinaraziko dio interesdunari, eta Elkartearen Batzarrari erreklamazioa aurkezteko aukeraren berri ere emango dio.

10.3.- Elkarteko idazkariak alden eta bajen berri emango du: zirkularren bidez modu iraunkorrean eta formalki Batzarrean.

## **11. artikulua. -Bazkideen eskubideak**

---

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkideek eskubide hauek izango dituzte:

### **11.1.- Eskubide orokorrak:**

- a).- Batzar Nagusian hitza izango dute.
- b).- Elkartearen jarduerari buruzko unean uneko informazio zuzena jasoko dute.
- c).- Elkarteko zerbitzuak erabili ahalko dituzte.
- d).- Proposamenak aurkeztu ahalko dituzte urteko programetarako edo Elkartearen funtzionamenduarekin lotutako gaietarako.
- e).- Elkarteko jarduerekin lotutako edozein deialdi edo lehiaketari buruzko informazioa jasoko dute.

### **11.2.- Boto eta ordezkaritza eskubideak**

f).- Batzar Nagusian bozkatu ahalko dute, aurreikusitako haztapenaren arabera (18.2. artikulua).

g).- Ordezkaritza postuetarako kideak aukeratuko dituzte eta postu horietarako hautagai izan ahalko dira.

h).- Zuzenean parte hartu ahalko dute *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen organo guztietan, ezarritako hautaketa prozesuen arabera.

## **12. artikulua.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkide diren elkarte edo federazioetako pertsona edo entitate kideei buruzko aurreikuspenak**

---

12.1.- *Elkarteko* bazkide diren erakundeetako pertsona edo entitate kideek zuzenean izango dituzte 11.1. artikuluan aipatutako eskubideak; horretarako, erakunde titularren ordezkaritza organoek *Elkarteko* Zuzendaritza Batzordearekin adostu eta ezarriko dituzte bi aldeei egokien iruditzen zaizkien komunikazio mekanismoak.

12.2.- *Elkarteko* bazkide diren erakundeetako pertsona edo entitate kideek, 9.1. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, eskubidea izango dute *Elkartera* zuzenean kidetzeko eta 11.2. puntuan aipatutako eskubideak edukitzeko.

## **13. artikulua. E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkideen betebeharrak**

---

*Elkarteko* bazkideek betebeharrak hauek dituzte:

13.1.- *Elkarteko* bazkide izatea eskatzen dutenean inplizituki onartzen dituzten estatutueta arauak errespetatuz jardun behar dute.

13.2.- Batzar Nagusiaren erabakiak bete behar dituzte, baita Zuzendaritza Batzordeak erabaki horiek garatzeko ezarritako ildoak ere.

13.3.- Ezarritako kuotak ordaindu behar dituzte.

13.4.- Informazio fidagarria eta arduratsua eman behar dute isilpekoak edo hertsiki pertsonalak ez diren alderdi profesionali buruz, Zuzendaritza Batzordeak hala eskatuz gero *Elkartera*entzat interesekotzat jotzen duelako.

13.5.- Behar bezainbesteko laguntza eman behar dute guztion interes profesionaleko gai, arazo edo beharrei egokiro erantzuteko, *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak aukera izan dezan haiek ordezkaritza gisa izendatzeko egin beharreko kudeaketetarako, betiere federazioak, gremioak edo elkarteak egoki baderitzo.

## **14. artikulua.- Bazkideen baja**

---

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteko bazkide izateari uzteko arrazoiak dira honako hauek:

14.1.- Bazkide interesdunak bere borondatez uztea *Elkartea*. Interesdunak idatziz izapidetu beharko du eskaera, *Elkarteko* Lehendakariari zuzendua, eta egunean egon beharko du kuoten ordainketan.



14.2.- Zigorragatik Elkartetik botatzea, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, egoera hauetakoren bat gertatuz gero:

14.3.- Estatutu hauek eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakiek dakartzaten betebeharrak larriki eta behin eta berriz urratzea.

14.4.- Kuota behin eta berriz eta arrazoirik gabe ordaindu gabe uztea. Bazkidetza eteteaz gain, Elkarateak dagozkion legezko ekintzak gauzatu ahalko ditu zorretan dauden kopuruak kobratzeko. Urte sari baten zorra nahikoa izango da bazkidetza eteteko.

### III. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOAK

#### 15. artikulua.- Elkaratearen gobernu organoak

---

Elkartea gobernatzeaz eta administratzeaz organo hauek arduratuko dira:

- a).- Bazkideen Batzar Nagusia, erabaki organo goren gisa.
- b).- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritza iraunkorreko kide anitzeko organo gisa.
- c).- Koordinazioko Batzorde Iraunkorra.

#### TITULUA. EHMBE-REN BATZAR NAGUSIA

#### 16. artikulua.- Batzar Nagusiaren osaera

---

Batzar Nagusia Elkarteko bazkide guztiek osatuko dute, honela ordezkaturata:

16.1.- Elkarateak: delegazioa elkarate kideetako lehendakariak osatuko dute, edo haien estatutuen arabera legez lehendakariak ordez jardun behar duten edo dezaketen pertsonak. Lehendakariak beste pertsona batekin joan ahalko dira, norbere elkarateak askatasunez izendatua; pertsona horrek hitza izango du, baina ezingo du bozkatu.

16.2.- Enpresak: enpresaren legezko ordezkaria edo eskuordetutako pertsona joan ahalko da Batzar Nagusira. Kide bakarreko enpresen kasuan, pertsonalki parte hartu beharko dute, eta ezingo dute botoa inoren esku utzi.

16.3.- Batzar Nagusian parte hartuko duten pertsonak / delegazioek boto kopuru zehatz bat izango dute, estatutu hauen 18. artikuluan ezarrita dagoen ordezkariak proportzionaleko taularen arabera.

16.4.- Delegazioek behar bezala egiaztatuta joan beharko dute Batzar Nagusira. Horretarako, batzarraren deialdiarekin batera igorriko da dagokion egiaztagiria, eta Elkaratearen Idazkaritzari aurkeztu beharko zaio saioa hasi aurretik. Ordezkaritza batek Batzar Nagusiaren bileran hitza eta botoa edukitzeko, ezinbestekoa izango da egiaztagiriak aurkeztea.

## 17. artikulua.- Deialdia eta saioak

---

17.1.- Batzar Nagusia bazkideek beren nahia adierazteko organoa da. Ohiko eta ezohiko bilerak egingo ditu.

17.2.- Batzar Nagusiaren ohiko bilera:

a).- Gutxienez urtean behin egingo da, lehen hiruhilekoan.

b).- Zuzendaritza Batzordeak deituko du, gutxienez bilera data baino hamabost egun lehenago; deialdia idatziz edo hura jaso izana dudarik gabe egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein bidetatik egingo du, eta bertan zehaztuta ageriko dira bileraren eguna, ordua eta tokia, bai lehen deialdian, bai bigarrenean (gutxienez ordu erdiko tarte izango da bi deialdien artean), baita eguneko gai zerrenda ere. Deialdiari erantsiko zaizkio delegazioek parte hartzeko aurkeztu beharreko egiaztagirak.

17.3.- Batzar Nagusiak ezohiko bilera egingo du Zuzendaritza Batzordeak hala eskatuz gero, bere ekimenez edo bazkideen herenak eskatuta, eta bileraren arrazoiak eta helburua adierazi beharko ditu. Edonola ere, ezohiko bilera egingo da informazioa eta erabakiak gai hauei buruzkoak badira:

a).- Estatutuak aldatzea.

b).- Elkartea desegitea.

c).- Ondasun higiezinak eskuratzea edo/eta saltzea.

## 18. artikulua.- Bazkideen ordezkaritza proportzionala tipologiaren arabera

---

18.1.- *Elkarteko* bazkide bakoitzak izenezko botoa izango du Batzarrean.

18.2.- *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen partaidetza filosofia (3. artikuluan azaldua) eta bazkideen tipologia (9.2. artikulua) oinarritzat hartuta, *Elkartearen* Batzarreko hasierako bertaratze quoruma eta bertaratutakoen botoak zenbatzeko quoruma erreferentzia hauen inguruan egituratuko da:

**a).- Ordezkaritza zabaleko elkarteak – T1 Taldea osatzen duten entitateen boto kopurua eta ordezkagarritasunaren ehunekoak:**

- 'Ordezkaritza zabaleko elkarte' bakoitzak: 5 boto

Talde horretan pilatutako botoek boto guztien % 50 izan beharko dute gutxienez.

**b).- Bestelako elkarteak edo enpresak – T2 Taldea osatzen duten entitateen boto kopurua eta ordezkagarritasunaren ehunekoak:**

b1.- Enpresa elkarteak:

- 2-9 bazkide: 2 boto

- 10-24 bazkide: 3 boto

b2.- Pertsonen elkarteak:

- 19 bazkide arte: 1 boto

- 20 bazkideetik gora: 2 boto

B3.- Jabe bakarrekoko enpresak

- Kide bakarrekokoak eta gehienez bost bazkide edo langile dituztenak: 1 boto
- 5 bazkide edo langiletik gora: 2 boto

Talde horretan pilatutako botoak ezingo dira izan boto guztien % 50 baino gehiago.

18.3.- T2 taldearen ordezkagarritasunaren muga kasu honetan bakarrik aplikatuko da: botoen hasierako batukari teoriko orokorrean T2 taldearen pisu erlatiboak gainditu egiten badu gehieneko ehuneko hori.

Une horretan, eta batukari hori erreferentziatuz hartuta, Batzarrean dagoen entitate bakoitzaren boto espezifikokoaren pisua haztatuko da, aipatutako taldeetako bakoitzak pilatutako botoaren ordezkagarritasuna boto guztien % 50en baliokidea dela bermatuta.

## 19. artikulua.- Quoruma eta gehiengoak

---

19.1.- Batzarrean dagoen bazkide bakoitzak bilera hastean ezagutuko du ordezkagarritasun teorikoaren taularen arabera dagokion boto kopuruaren erreferentzia espezifikoa, 18.2. artikuluan ezarria.

19.2.- Batzar Nagusia lehen deialdian eratzat jotzeko beharrezko bertaratze quoruma gehiengo osoa izango da –erdia gehi bat–, eta *Elkarteko* bazkide diren pertsona edo entitateen botoen batukari osoa hartuko da erreferentzia gisa.

19.3.- Bigarren deialdian, Batzarra legez eratzat joko da une horretan bertan dauden bazkideekin/botoekin.

19.4.- Behin Batzarra eratuta, eta partaidetza errealearen arabera, idazkariak boto haztapena kalkulatu du, 18.3. puntuan aurreikusitako prozedura erabiliz. Jarraian, haztapan horren emaitzen berri emango die bertaratuei, eta bileran egin beharrekoko bozketak zenbatzeko sistema argi eta eraginkorra ezarriko du.

19.5.- Batzar Nagusiaren ohiko erabakiak ezarritako boto kopuru osoaren gehiengo soilarekin hartuko dira, betiere 18. artikuluan ezarritako erreferentziak aintzat hartuta.

19.6.- Hemen aipatuta datozen erabakiak hartzeko, berriz, beharrezkoa izango da gehiengo kalifikatua, ezarritako boto kopuru osoaren eta 18. artikuluan ezarritako erreferentzien bi herenek osatua:

- a).- Estatutuak aldatzea.
- b).- Elkarte desegitea.
- c).- Beste elkarte batzuekin federazioa eta konfederazioa osatzea.
- d).- Ondasun higiezinak eskuratzea edo/eta saltzea.

## 20. artikulua.- Elkartearen Batzar Nagusiaren eskumenak

---

Batzar Nagusiarenak dira eskumen hauek:

- 20.1.- *Elkarteak* bere helburuak betetzeko jarduera ildo nagusiak ezartzea.
- 20.2.- *Elkartearen* estatutuak aldatzea.
- 20.3.- Kideen interes profesionalen ordezkarezekin, kudeaketarekin eta babesarekin lotutako erabakiak hartzea.
- 20.4.- Zuzendaritza Batzordearen jarduera eta kudeaketa kontrolatzea.
- 20.5.- *Elkartearen* urteko jarduera planak eta kontuak onartzea.
- 20.6.- Gastuen eta diru sarreren urteko aurrekontuak onartzea.
- 20.7.- *Elkarteko* lehendakaria eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.
- 20.8.- Zuzendaritza Batzordeak izendatutako zuzendari nagusiaren izendapena berrestea, hala badagokio.
- 20.9.- Bazkideek ordaindu beharreko kuotak zehaztea.
- 20.10.- Ondasun higiezinaren erosketa eta salmenta adostea eta onartzea.
- 20.11.- Barne Erregimeneko Araudiaren prestaketari buruz erabakitzea eta hura onartzea, behin idatzita.
- 20.12.- Beste elkarte batzuekin federazioa edo konfederazioa osatzea onartzea edo horietako bat uztea onartzea, hala badagokio.
- 20.13.- Aurkez dakizkioketen gatazkak ebaztea Batzarrak berak adostutako prozeduraren bidez.
- 20.14.- *Elkartearen* desgitea eta likidazioa eskatzea eta adostea, hala badagokio.
- 20.15.- Zuzendaritza Batzordeak izendatutako Batzorde Likidatzailearen izendapena onartzea.
- 20.16.- Estatutu hauek beste gobernu organo batzuei berariaz esleitzen ez dien eginkizun oro betetzea, baldin eta Elkartearen helburuak erdiesteko lagungarria bada.

## **II. TITULUA. E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen ZUZENDARITZA BATZORDEA**

### **21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen osaera eta aukeraketa**

---

21.1.- Zuzendaritza Batzordea Elkartea zuzentzen eta kudeatzen duen gobernu organoa da, eta Batzar Nagusiak ezarritako ildoaren arabera eta haren kontrolpean jarduten du.

21.2.- Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute:

- a).- Zerrenda itxia erabiliz aukeratutako Talde Kudeatzailea, kide hauek izango dituen: lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, diruzaina eta 2 batzordekide.
- b).- Gehienez beste 4 batzordekide, zerrenda irekien bidez aukeratuak.

21.3.- Talde Kudeatzailea hautatzeko zerrenda baliodunek baldintza hauek bete beharko dituzte beti:

- a).- Ordezkaritza zabaleko elkarteetako hiru kide izango dituzte gutxienez (T1 taldea, 9.2. artikulua).
- b).- Jarduera talde bakoitzeko kideak izango dituzte (T2 taldea, 9.3. artikulua).

### **22. artikulua. Baldintza pertsonalak eta ekonomikoak**

---

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, beharrezkoa izango da baldintza hauek betetzea:

- a).- Estatuetan aurreikusitako moduan hautatua izatea.
- b).- *Elkarteko* kide izatea.
- c).- Adinez nagusia izatea eta eskubide zibil guztiak edukitzea.

Karguak ez dira ordainduak izango, nahiz eta Zuzendaritza Batzordeak dietak eta gastuak ordaintzeko aukera ezar dezakeen, beharrezko iritziz gero.

### **23. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea aukeratzea**

---

23.1.- Batzar Nagusiak aukeratuko du Zuzendaritza Batzordea (Talde Kudeatzailea eta batzordekideak), artikuluko honetan ezarritako prozeduraren arabera.

23.2.- Kargua uzten duen Zuzendaritza Batzordeak eratuko du hauteskunde mahaia, hiru batzordekide zozketa bidez hautatuta, eta hark izango du ahalmena hautagaiak aurkezteko epean eta bozketa egiteko Batzarrean bertan ager daitekeen ezein gai ebazteko. Karguak hautatzeko prozesua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren erabaki guztiak hartu ahalko ditu, edozein unetan eta batzordekideen gehiengoarekin.

23.3.- Batzar Nagusiak karguak berritzeko egin beharreko ohiko bilera gutxienez 30 egun naturaleko aurrerapenez deituko da.

23.4.- Deialdia bazkide guztiei jakinaraziko zaie, eta bertan atxikita joango da bozkatzeko eskubidea duten bazkideen zerrenda bat; dokumentu horretan, halaber, adierazita egongo da bakoitzari zer boto kopuru dagokion printzipioz, estatutu hauen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

23.5.- Karguak aukeratzeko Batzar Nagusia deitzean bazkideren bat ez badago egunean betebehar ekonomikoen ordainketan, ez du bozkatzeko eskubiderik izango.

23.6.- Deialdia jasota, edozein bazkidek bidali ahalko du bere hautagaitzaren proposamena. Hautagaitza guztiak gutxienez bilera baino hamar egun lehenago jaso beharko ditu Zuzendaritza Batzordeak.

23.7.- Hautagaitzak 21. artikuluko 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako osaeraren eta baldintzen arabera osatuko dira.

23.8.- Aurkeztutako hautagaitza baliodun guztiak gutxienez bilera baino zazpi egun lehenago emango dira ezagutzera, bazkide diren pertsona eta entitate guztiek ezagutu ditzaten.

23.9.- Zuzendaritza Batzordea hautatzeko prozedura honako hau izango da:

a).- Hasteko, Talde Kudeatzailea hautatuko dute, zerrenda itxien sistemaren bidez. Boto gehien jasotzen dituen zerrenda hautatuko da.

b).- Behin Talde Kudeatzailea hautatuta, prozesuaren lehen fasean hautatu gabe geratu diren zerrenda itxietako edozein pertsonak aukera izango du gainerako batzordekideak hautatzeko zerrenda irekian sartzeko.

c).- Azkenik, 4 batzordekide hautatuko dira, zerrenda irekien sistemaren bidez; boto gehien lortzen dituztenak izango dira batzordekide.

23.10.- Talde Kudeatzailea aukeratzeko hautagaitza bakarra izanez gero, hura aukeratutzat joko da bozketarik gabe, baldin eta bertaratutakoren batek ez badu berariaz eskatzen bozketa egitea. Prozedura bera erabiliko da batzordekide izateko hiru hautagai baino gehiago aurkezten ez badira.

23.11.- Bileraren emaitza akta batean jasoko du idazkariak, lehendakariaren oniritziarekin eta mahai osoaren onarpenarekin.

#### **24. artikulua.- Karguen iraupena eta Zuzendaritza Batzordea berritzea**

---

Batzar Nagusiak bi urterako aukeratuko du Zuzendaritza Batzordea, Batzordeak berariaz behar baino lehenago baliogabetzea eskatu ezean. Batzordekideak berriz hautatu ahalko dira beste bi urterako.

#### **25. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilerak**

---

25.1.- Zuzendaritza Batzordea urtean bitan bilduko da ohiko bileran, Lehendakariak deituta, eta ezohiko bileran, berriz, elkartearen jarduerak egokiro garatzeko beharrezkoa den guztietan edo gutxienez batzordekideen herenak hala eskatzen badu.

25.2.- Aldez aurretik deituta, Zuzendaritza Batzordea baliozki eratuta egongo da bertaratutako kopurua edozein dela ere, baina beti izango da beharrezkoa lehendakaria eta idazkaria bertan egotea, edo, haiek egon ezean, estatutuetan ezarritakoaren arabera haien eginkizunak bete behar dituenak.

25.3.- Batzordekideek nahitaez joan beharko dute bileretara, eta ezingo dute betebeharrak hori eskuordetu. Batzordekideren batek arrazoi justifikaturik gabe huts egiten badu hiru aldiz jarraian, kargutik kenduko dute.

25.4.- Zuzendaritza Batzordeak gehiengo soilarekin hartuko ditu erabakiak. Erabaki horien aurkako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Batzar Nagusiari.

25.5.- Zuzendaritza Batzordeko ohiko nahiz ezohiko bilerei eta hartutako erabakiei buruzkoak aktan jasoko ditu idazkariak, eta dagokion Akten Liburuan transkribatuko ditu. Bilera baten akta hurrengo ohiko bileran onartu beharko da.

25.6.- Lehendakariak proposatu eta gehiengoak onartuz gero, hirugarrenak ere joan ahalko dira Zuzendaritza Batzordearen bileretara, hitz egiteko aukerarekin baina botorik gabe.

#### **26. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eskumenak**

---

Zuzendaritza Batzordeari dagozkio eskumen hauek:

- 26.1.- *Elkartearen* jardute ildo orokorrak kudeatzea eta horiei jarraipena egitea.
- 26.2.- Estatutuak, araudiak eta Batzar Nagusiaren erabakiak betetzea eta betearaztea.
- 26.3.- Bazkideen interes profesionalak egokiro eta eraginkortasunez babesteko beharrezkoak diren jarduerak eta ekintzak proposatzea Batzar Nagusiari.
- 26.4.- Jarduera edo lan zehatzak egiteko batzorde espezifikoen edo lantaldeen sorrera proposatzea.
- 26.4.- *Elkartearen* urteko jarduera planak diseinatzea eta kudeatzea, Batzar Nagusiak onar ditzan.
- 26.5.- Koordinazioko Batzorde Iraunkorrekarekin etengabe harremanetan egotea.
- 26.6.- Koordinazioko Batzorde Iraunkorrek prestatutako koordinazioko eta jarraipeneko aldizkako txostenak Batzar Nagusiari igortzea.
- 26.7.- Kontuak emateko txostena eta sarrerren nahiz gastuen urteko aurrekontua prestatzea Batzar Nagusiari ohiko bilera batean aurkezteko.
- 26.8.- Bazkideek nahitaez ordaindu beharreko kuotak eta derrama ekonomiko posibleak proposatzea, Batzar Nagusiak onartutako urteko aurrekontua egikaritzeko.
- 26.9.- Elkarteko bazkideen altak eta bajak onartzea.
- 26.10.- Elkarteko langileen kontratuak kudeatzea, langilerik izanez gero.
- 26.11.- Proiektuak garatzeko zerbitzu eta lanen kontratazioak kudeatzea.
- 26.12.- Zuzendaritza Batzordeari bere eginkizunetan lagunduko dioten aholkulariak izendatzea, beharrezkoa izanez gero.
- 26.13.- Estatutu hauetako aurreikuspenen baitan, hirugarrenen aurrean Elkartearen ondasunak administratzea, ahalmena edukita jabetzako, xedapeneko edo administrazioko edozein egintza adosteko, inolako mugarik gabe, ez materiari dagokionez, ez zenbatekoari dagokionez, eta inongo mugarik gabe erabiliz erakundearen ordezkariak ahalmen guztiak. Horretarako, lehendakaria baimenduko du akordioak betetzeko beharrezkoa den dokumentu publiko eta pribatu oro ematera, helburu guztietarako, eta horretarako nahikoa izango da idazkariak akordioa egiaztatzea, lehendakariaren oniritziarekin.
- 26.14.- Elkartea ordezkatzeko eta jendaurreko bozeramaile eginkizunak betetzea edo eskuordetzea.
- 26.15.- Batzar Nagusia deitzea.
- 26.16.- Barne Erregimeneko Araudia idaztea eta proposatzea, Batzar Nagusiak onar dezan.
- 26.17.- Estatutuak eta barne araudia interpretatzea, eta, zalantzarik izanez gero, bertan aurreikusita ez dauden kasuak ebaztea.

## **27. artikulua.- Kargu uztea eta kargu hutsak**

---

Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dute kargua:

- 27.1.- Agintaldia amaitzean.
- 27.2.- Dimisioa emanez gero.
- 27.3.- Legez aitortutako ezintasunen bat izanez gero.
- 27.4.- Heriotzagatik.

Agintaldiak iraun bitartean Zuzendaritza Batzordean karguren bat hutsik geratuz gero, Batzordeak berak beteko du, Elkartearen hurrengo Batzar Nagusia egin arte. Lehendakariak egingo du proposamena, eta Batzordeak berretsi egingo du, batzordekideen gehiengo soilaren bidez. Hauteskundeetara zerrenda irekietan aurkeztutako hautagaien artetik aukeratuko dute ordezkaria.

Lehendakari kargua hutsik geratuz gero, lehendakariordeak beteko du, Batzar Nagusiaren hurrengo bilerara arte, eta bilera horretan aukeratu beharko da lehendakari berria, edo lehendakariordearen izendapena berretsi.

## **28. artikulua. - Errekurtsoak**

---

28.1.- Zuzendaritza Batzordearen erabakien aurka errekurtsua aurkeztu ahal izango da Batzar Nagusiaren aurrean.

28.1.- Bazkideen eskubide eta betebeharrei eragiten dieten ebazpen guztiek arrazoituta egon beharko dute, eta idatziz jakinarazi beharko zaizkie interesdunei, jakinarazpen horretan aurkez ditzaketan errekurtsoen berri emanda.

28.3.- Estatutu hauetan berariaz aurreikusitako beste eperik ezean, errekurtsuak egiteko hogeita bost egun izango dira, jakinarazpen datatik zenbatzen hasita, eta haiek jaso dituen organoaren hurrengo ohiko bileran ebatzi beharko dira.

## **III. TITULUA. KOORDINAZIOKO BATZORDE IRAUNKORRA ETA ELKARTEAREN BESTE BATZORDE EDO ORGANO BATZUK**

### **29. artikulua.- Koordinazioko Batzorde Iraunkorra: osaera eta eskumenak**

---

29.1.- Batzorde hau gutxienez pertsona hauek osatuko dute:

- a).- Zuzendaritza Batzordeko bi kide, gutxienez.
- b).- Abian dauden proiektuen arduradunak.
- c).- Elkarteari laguntza ematen dion Idazkaritza Teknikoko gerentea edo arduradunak.

29.2.- Koordinazioko Batzorde Iraunkorrari dagozkio eskumen hauek:

- a).- Elkartearien jarduna koordinatzea eta horri etengabeko jarraipena egitea.
- b).- Abian diren proiektuak koordinatzea eta haiei jarraipena egitea.
- d).- Proiektuen koordinazioko eta jarraipeneko aldizkako txostenak prestatzea, Zuzendaritza Batzordeari eta Batzar Nagusiari aurkezteko.
- c).- Zuzendaritza Batzordearekin etengabeko harremana izatea, helburu hauetarako:
  - proiektuen egoeraren eta gorabeheren berri ematea,
  - Batzar Nagusiaren ezohiko bileren beharra aztertzea edo proposatzea.

### **30. artikulua.- Elkarteko beste batzorde edo organo batzuk (batzorde bereziak)**

---

30.1.- Zuzendaritza Batzordeak proposatuta, Batzar Nagusiak batzorde berezi bat edo batzuk eratu ahal ditu. Batzorde horiek bazkideek edo bazkide ez direnek osatuko dituzte, batzorde bakoitzari lotutako proiektuen edo lan arlo zehatzen beharren arabera.

30.2.- Batzorde berezien eginkizuna aldatu egingo da bakoitzaren helburuaren arabera: lana, eztabaida, azterketa, aholkularitza, etab. Edonola ere, batzorde horien



erabakiak edo aholkuak aplikatzeko, beharrezkoa izango da Zuzendaritza Batzordeak alde zuzenetik berrestea. Barne funtzionamenduko araudiak zehaztuko ditu batzorde horien aukeraketa prozedura eta lan baldintzak, eta batzordeak mota hauekoak edo unean-unean egoki irizitako beste mota batekoak izango dira:

a).- Proiektuen lantalde edo batzorde espezifikoak. Talde horietako bakoitzaren eginkizun espezifikoak Zuzendaritza Batzordeak eta Koordinazioko Batzorde Iraunkorrak zehaztuko dituzte.

b).- Proiektuak edo kontratazioak aztertzeko batzordeak. Horrelako batzordeen helburua, osaera eta funtzionamendua barne funtzionamenduko araudiaren atal espezifikoetan zehaztuko dira.

c).- Batzorde berezi mistoak, erakundeekin edo bestelako entitateekin egindako hitzarmenei jarraipena egiteko.

d).- Beste batzorde mota batzuk, barne funtzionamenduko araudian deskribatu eta arautuko direnak.

30.3.- Batzorde berezietako kideak Zuzendaritza Batzordearen bileretara joan ahalko dira, Batzordeak hala eskatuz gero, eta hitza izango dute, baina ez botoa. Batzorde berezietako kidea izateak ez die eragotziko beste kargu aktibo batzuk bete ahal izatea.

30.4.- Batzorde berezietako kideak batzorde horietatik kanpo geratuko dira haien izendapena eragin zuen lana edo proiektua amaitzen denean.

## **IV. TITULUA. ELKARTEAREN KIDE BAKARREKO ORGANOKAK**

### **LEHENDAKARIA**

#### **31. artikulua.- Izaera eta aukeraketa**

---

31.1.- Lehendakariak bere gain hartuko du Elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren erabakiak betearaziko ditu. Bera izango da bi organo horien burua.

31.2.- Batzar Nagusiak aukeratuko du, eta haren agintaldiak 2 urte iraungo du, printzipioz; gehienez ere, ondoz ondoko bi agintalditan aukeratu ahalko dute.

#### **32.-artikulua.- Eginkizunak**

---

Lehendakariari dagozkio eginkizun hauek:

32.1.- Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak eskuordetuta, E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen goi zuzendaritzaz eta legezko ordezkariatzaz arduratuko da.

32.2.- Eztabaidetan buru eta zuzendari izango da, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen ohiko nahiz ezohiko bileretan.

32.3.- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bilerak deituko ditu.

32.4.- Oniritzia emango die *Elkarteko* idazkariak jaulkitako aktei eta egiaztagiriei.

32.5.- Elkartearen izenean, eta kide anitzeko organoen erabakiak egikaritzeko, mota guztietako dokumentu publiko eta pribatuak emango ditu, eta, hala badagokio, beharrezko erregistro publikoetan inskribatuko ditu.

32.6.- Premiaz eta Zuzendaritza Batzordea biltzeko aukerarik gabe ebatzi beharreko gaiak ebatziko ditu, eta ahalik eta lasterren emango dio hartutako erabakien berri Zuzendaritza Batzordeari.

32.7.- Karguari berezkoak zaizkion gainerako eskuduntzak beteko ditu.

## **LEHENDAKARIORDEA**

### **33.-artikulua.- Eginkizunak**

---

33.1.- Lehendakariordeari dagokio lehendakariaren ordezkari lanak egitea hura ez badago, gaixorik edo ezindua badago, kargua utzi badu edo dimisioa eman badu. Horrelakoetan, lehendakariak dituen eskuduntza berberak izango ditu.

33.2.- Halaber, haren eginkizuna da lehendakariari laguntzea eta hura ordezkatzea, hark berariaz eskuordetuta.

Lehendakariaren ordezkoa izango da ordezkapena eragin duen arrazoia aldatu arte.

## **IDAZKARIA**

### **34.-artikulua.- Eginkizunak**

---

Idazkariari dagozkio eginkizun hauek:

34.1.- Elkarteko kide anitzeko organo guztien bileren aktak idaztea, horiek artxibatzeaz arduratzea, horretarako liburuak osatzea eta eguneratzea, eta haien edukiak egiaztatzea, lehendakariaren oniritziarekin.

34.2.- Bazkideen Erregistro Liburuaz arduratzea, altak eta bajak eguneratuta eta bazkideek afiliazio baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta.

34.3.- Elkarteko Idazkaritza Zerbitzua zuzentzea, gutunak bideratuta, izapidetuta eta ordenatuta eta elkarteko dokumentazioa artxibatzeaz arduratuta.

34.4.- Dei eta deialdi guztiak estatutuen arabera bideratzea eta estatutuak betetzen direla zaintzea, aktan beharrezkotzat dituen ohartarazpenak eginda kide anitzeko organoen bilerekin.

34.5.- Lehendakariaren oniritziz egindako ziurtagiriak betetzea eta baimentzea.

## **DIRUZAINA**

### **35.-artikulua.- Eginkizunak**

---

Diruzainaren eginkizunak izango dira:

35.1.- Sarrereren eta gastuen aurrekontuak berrikustea, bai ohikoak, bai ezohikoak, eta horien prestaketan parte hartzea.

35.2.- Lehendakariaren edo idazkariaren baterako sinadurarekin elkartearen funtsak erabiltzea.

35.3.- Bankuetan, aurrezki kutxetan eta finantza erakundeetan kontuak eta gordailuak irekitzea, eta erakunde horiekin finantza zerbitzuen eta finantzakoak ez diren zerbitzuen kontratuak hitzartzea, Zuzendaritza Batzordeak aldeztetik erabakita.

35.4.- Bazkideen kuotak eta derramak biltzea, eta Elkartearen izenean kobratzea, ordainagiria emanda.

35.5.- Lehendakariak jaulkitako ordain aginduak ordaintzea.

35.6.- Kontabilitateaz arduratzea, Elkartearen kontuak eta aurrekontu proiektua prestatzea, kontabilitateko funtsak eta dokumentuak zaintzea eta Elkartearen kontuen egoeren berri ematea, Zuzendaritza Batzordeko edozein kidek hala eskatuz gero.

35.7.- Elkarteko zuzendari kudeatzailearekin eta aholkularitza ekonomikoarekin (halakorik izanez gero) elkarlanean aritzea, ahalik eta kudeaketa ekonomiko onena garatu ahal izateko.

## IV. KAPITULUA. ZIGORTZEKO ARAUBIDEA

### 36. artikulua.- Hutsegiteak

---

36.1.- Hutsegite arina da betebeharraren asoziatiboaren hauste oro, baldin eta estatutu hauetan berariaz hutsegite larri gisa sailkatuta ez badago.

36.2.- Hutsegite larriak dira:

a).- Urtebetean hutsegite arinagatik zigor bat baino gehiago jasotzea. Horretarako, zigorra eduki behar da diziplinazko bi espedientetan preskribatu gabeko hutsegiteengatik.

b).- Elkarteko organoek hartutako erabaki legitimoen jendaurrean edo/eta setakeriaz ez men egitea.

c).- Nahita egitea jendaurrean izena galtzera bideratutako edozein ekintza.

d).- Karguak edo botereak norbere onurarako edo Elkartearenak ez diren interesetarako bidegabeki erabiltzea, Elkarteko kideen interes orokorrei kalte eginda.

### 37. artikulua. - Zigorrak

---

37.1.- Hutsegite arinei zigor hauek dagozkie:

a).- Zuzendaritza Batzordeak zigortuari ohartarazpen pribatua egitea.

b).- Zuzendaritza Batzordeak zigortuari idatzizko ohartarazpen publikoa egitea.

c).- Bazkide eskubideak etetea hamabost egunetik hilabete bitarteko epean.

37.2.- Hutsegite larriei zigor hauek dagozkie:

a).- Zuzendaritzako karguak betetzeko behin-behinean ezgaitzea, urtebetetik hiru urtera arte.

b).- Bazkide eskubideak etetea, urtebetetik hiru urtera arte.

c).- Behin betiko bereiztea, Elkartetik kanporatuta.

### 38. artikulua.- Prozedura

---

38.1.- Lehendakaritzak ikerketa bat abiaraztea erabaki ahalko du, jokabide zigorgarriak argitzeko. Jarduerak Idazkaritzak gauzatuko ditu, eta horrek proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurri egokiak. Zigorrak jartzea Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da, eta zigorra jarri aurretik interesdunak esan beharrekoa entzun beharko du.

38.2.- Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak arrazoituta egon beharko du, eta pertsonalki jakinarazi beharko zaio interesdunari; aurkez ditzakeen errekurtsoen berri ere eman beharko zaio.

38.3.- Erabaki horren aurkako errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio Batzar Nagusiari; horretarako, hogeita bost egun natural izango ditu interesdunak, erabakiaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

38.4.- Batzar Nagusiari errekurtsoa aurkeztuz gero, Zuzendaritza Batzordeak ezohiko bilera bat deitu beharko du, eta gehienez ere bi hilabete izango ditu horretarako, errekurtsoa jarri zenetik zenbatzen hasita. Denbora tarte horretan, bazkidearen eskubideak eten egingo dira, kautelazko neurri gisa.

## V. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

### 39. artikulua.- Hasierako ondarea

---

Elkartearen hasierako ondarea o eurokoa da.

### 40. artikulua.- Baliabide ekonomikoak

---

40.1.- Elkarateak bere jarduerak garatzeko aurreikusita dauzkan baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

a).- Sarrera kuotak, adostutako aldizkako kuotak, ezohiko kuotak edo derramak.

b).- Erakunde publikoetatik jasotako sarrerak: hitzarmenen bidezko diru laguntzak, jarduera zehatzetarako diru laguntzak, kontratuak, etab.

c).- Laguntza pribatuak.

d).- Legatuak.

e).- Elkarteak ez ditu berezko baliabideak edukiko organikoki erabat garatu arte.

40.2.- Ekitaldi asoziatiboa eta ekonomikoa urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

40.3.- Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) Elkarteak irabaziak lortzen baditu, bere helburuak betetzeko bakarrik erabiliko ditu. Ez dira inolaz ere bazkideen artean banatuko, ezta haien ezkontideen edo haiekin antzeko afektibitate harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere, eta ezingo zaizkie doan laga irabazi asmoak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

## VI. KAPITULUA. SARIAK

### 41. artikulua.- E.H.M.B.E. - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak sustatutako sariak

41.1.- Batzar Nagusiak, Zuzendaritza Batzordeak hala proposatuta, sariak eman ahalko dizkie euren jarrera aktibo eta etengabeari esker musika sektorea (balio kate osoa aintzat hartuta), musika bera eta bereziki *Euskal Herrian* ekoiztutako musika indartzen, duintzen, hobetzen eta goratzen duten guztiei, edo beste organismo eta erakunde batzuei eskatu ahalko die horiei saria ematea.

41.2.- Sari horiek emateko prozedura Zuzendari Batzordeak zehaztuko du.

## VII. KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA

### 42. artikulua.- Iniziatiba eta prozedura

42.1.- Estatutuak Zuzendaritza Batzordearen inizatibaz aldatu ahalko dira, edo Elkartean inskribatutako pertsona eta entitate bazkideen erdiek eskatuz gero.

42.2.- Zuzendaritza Batzordeak batzorde txostengile bat izendatuko du, hiru bazkidek osatua, aldaketa proiektua idazteko. Bertan jasoko dituzte bazkideek egindako proposamenak, eta Zuzendaritza Batzordeak emandako jarraibideak erabiliko dituzte. Zuzendaritza Batzordeak zehaztuko du zer epetan egon beharko duen bukatutako proiektuak.

42.3.- Aldaketa proiektua zehaztutako epean idatzi ostean, lehendakariak Zuzendaritza Batzordeko hurrengo bileraren gai zerrendan sartuko du, eta Batzordeak onartu egingo du, edo batzorde txostengileari bueltan bidaliko dio, berrazter dezan.

42.4.- Proiektua onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiaren hurrengo ezohiko bileraren gai zerrendan sartzea erabakiko du, edo proiektua aztertzeke ezohiko bilera bat deitzea adostuko du.

42.5.- Batzar Nagusiaren ezohiko bileraren deialdiari atxikiko zaio estatutuak aldatzeko testua, bazkide diren pertsonak eta entitateek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak bidal diezazkioten idazkariari; zuzenketa horien berri Batzar Nagusian emango da, baldin eta idazkariaren eskuetan badaude bilera baino hogeit hamar egun lehenago.

42.6.- Zuzenketak bakarka edo taldeka egin ahalko dira, idatziz aurkeztuko dira eta testu alternatibo bat proposatuko dute.

42.7.- Bozkatuko den behin betiko testua onartzeko, beharrezkoa izango da bertaratutakoek bi herenek aldeko botoa ematea.

## VIII. KAPITULUA. ELKARTEA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

### 43. artikulua.- Desegitea

*E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Batzar Nagusiaren erabakiaren bidez desegin ahalko da. Horretarako, ezohiko bilera bat berriaz deituko da, eta kideen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa.

### 44.-artikulua.- *E.H.M.B.E.* - Euskal Herriko Musika Bulego Elkartearen likidazioa

44.1.- Elkarteak deseginez gero, erabaki hori hartu duen Batzar Nagusiak Batzorde Likidatzailea izendatuko du, Zuzendaritza Batzordetik aterako bi kidek eta hiru bazkidek osatua. Batzorde hori arduratuko da Elkartearen funtsez, baita Elkarteak likidazioaren unean zer ondare duen zehazteko beharrezkoak izango diren eragiketa guztiez ere.

44.2.- Bazkideei eta hirugarrenei begirako betebeharrak sozialak ase ostean ondare sozialik geratzen bada soberan, Elkarteak desegitea eta likidatzea adostu duen Batzar Nagusiak erabakitako xedeetara bideratuko da, ongintzako eta irabazi asmorik gabeko entitateetara, betiere.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

**LEHENA:** Zuzendaritza Batzordeak izango du eskumena estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatzeko eta bertako hutsuneak betetzeko, betiere elkartearen arloan indarrean dauden legezko araudiei men eginda, eta Batzar Nagusiaren lehen bileran erabakitakoaren berri emanda, onartua izan dadin.

**BIGARRENA:** Batzar Nagusiak Barne Erregimeneko Araudi bat onartu ahalko du, estatutu hauek garatzeko. Dokumentu horrek ez ditu inolaz ere aldatuko estatutuaren jasotako aginduak.